

Marina Yañez - Inés Vilallonga
DBH4, 2014


Aurkibidea

Joan Mari Irigoien	3
Sarrera	4
<i>Odolean neraman</i>	
● Kokapena	4
● Gaia	5
● Argumentua	5
● Gertaera garrantzitsuenak	6
● Pertsonaiak	7
● Egituraketa	8
● Baliabideak	8
● Iritzia	9
Bibliografia - Webgrafia	10

Joan Mari Irigoien

Joan Mari Irigoien Altzan (Gipuzkoa) 1948ko irailaren 30ean jaio zen euskal idazlea da. Ingeniaritza ikasi zuen baina ez du inoiz alor horretan jardun. Zenbait ikastolatan irakaslea izan da eta ETBn lan egin du hainbat pelikula itzultzen eta adaptatzen.

Gaztea zenean, Erreala taldean jokatu zuen eta Venezuelara zenbait bidaia egin zituen. Horri esker literatura autore batzuk ezagutu zituen: Arguedas, Scorza, Benedetti... bezala. Venezuelatik bueltatu ostean, Egin egunkarian zuzentzaile moduan aritu zen. Bere lehenengo liburua 1973. urtean argitaratu zuen, *Oilarraren promesak* izenburuarekin. Liburu horri esker Iruñeko hiriaren saria irabazi zuen.



Lanik ezagunenak *Babilonia*, *Lur bat haratago* eleberriak eta *Udazkenaren balkoitik* dira. *Babilonia* erderara itzulita dagoen liburuetako bat da. Elkar gorrotatzen duten bi anairen istorioa azaltzen da. *Lur bat haratago* bere nobelalik luzeena da, 600 orri inguru ditu eta. *Udazkenaren balkoitik* liburua Mirande saria lortu zuen 1986. urtean. Joan Marik idatzitako beste liburu batzuk: *Poliedroaren hostoak*, *Kalamidadeen liburua*, *Ipuin batean bezala*...

Joan Mari Irigoien hogeita lau urtez idazle profesional moduan aritu izan da Elkar argitaletxearen eskutik. 2013an jubilatatu behar izan zuen, osasun arazoak zirela eta. Esklerosia sufritzen zuen Joan Marik baina, hala ere, poesia lantzen jarraitzen du gaur egun.

Sarrera

Liburu honek istoriotxo bat kontatzen du, futbolearen arrakasta izan zuen mutiko baten bizitzaren istoriotxo, hain zuzen ere. 2004. urtean argitaratu zen liburu hau, duela hogeita hamar urte inguru gertatutako istorioa azaltzen du. Enekok lehen pertsona kontatzen du zehazki berak bizi izandako gertaerak deskribapenen, pentsamenduen, elkarrizketen... bidez. Bere bizitzako zati handiena Gipuzkoan igarotzen du, bere aita, ama eta amona Sinforosarekin batera.

Eneko oso txikia denetik futbolearen oso trebea dela erakusten du eta izugarri gustatzen zaio. Auzoko taldean jokatzen Barçan jokatzera pasatzen da eta aldi berean, bere herrian soilik ezaguna izatetik Espainiako leku askotan ospetsua izatera pasatzen da. Baina futbolaria bilakatzea ez da iruditzen duen bezain erraza, eta hau oso ondo daki Enekok. Ze nolako esfortzuak egin beharko ditu Enekok futbolaria bilakatzeko? Ze motatako abenturak gertatuko zaizkio Enekori? Hainbat pertsonaia desberdin agertzen dira istorioan, Enekoren pentsatzeko modua eta haren ekintzak aldatzen dituztenak. Aldi berean, pertsona bera asko aldatzen da liburuan zehar. Nolakoa izango da Enekoren egoera amaieran?

Odolean neraman

Kokapena

Istorio hau, Eneko Ortegaren bizitza kontatzen du txikia denetik heldua egiten den arte. Haren ibilbidea, Donostiako mutil arrunt bat izatetik, Bartzelonako jokalaria famatueneraiko bat bihurtu arte izaten dituen esperientziak eta aldaketak kontatzen dira.

Kontakizuna, Donostian hasi eta Bartzelonan amaitu egiten da. Ez da zehazten denbora, hau da, istorioa irakurleak irakurtzen duen momentuan gertatzen da. Hala ere, liburuan aipatzen diren hainbat xehetasunetan oinarriturik, jakin dezakegu duela hogei eta hamar urte inguruko garaian garatu zela. Xehetasun haien adibide moduan; Johan Cruyff, Laudrup, Stoichkov, Pujol, Maragall, Lopez Ufart... istorioan momentuko famatuak bezala agertzen direlako.

Pertsonaia printzipala Eneko Ortega da, eta gainerako pertsonaiak, haren familia(aita, ama eta amona Sinfrosa), Donostiako eta Bartzelonako lagunak, momentu batean bere emaztea den emakumea (Montse) eta bestelako pertsonaia garrantzitsuak: Adela, D., mihi-pozoiduna...dira.

Gaia

Obra hau abenturazkoa da. Eneko izeneko mutil gipuzkoar baten bizitza azaltzen du. Txikia zenetik, futboleko nabarmenak zen eta gainera, jartzen zuen pasioari esker, futbolari profesionala bilakatzea lortu zuen.

Argumentua

Eneko futbolari bilakatzeagatik, beti nahi izan zuen bizitzeko modua eskuratu zuen; nahi zuen kotxe, etxe, emazte eta lan ederra. Liburua, Gipuzkoan hasten da, Eneko futboleko jolasten hasten denean. Pixkanaka-pixkanaka Eneko futbolari famatuagoa bilakatzen doa, baina famatua izateagatik, bere bizitzak hainbat aldaketa sufritzen ditu. Dena ez da beti berak nahi duen moduan gertatzen eta zenbaitetan arazoak izaten ditu ondo pasatzeko egiten dituen gauzen ondorioz. Hori dela eta, bere bizitza era imajinaezina batean amaitzen da.

Gertaera nagusiak

- Eneko Ortega bere aita, ama eta amona Sinforosarekin bizi da. Aita, amona eta Eneko futbolzale amorratuak dira. Txiki txikia denetik Enekok futbolean oso trebea dela erakusten du. Aitak, Eneko egiten dituen gauza batzuk direla eta, marikoia puntu bat daukala pentsatzen du. Familiak haien taberna propioan lan egiten dute.
- Auzoko La Salleko ikastetxera bidaltzen dute Eneko ikastera. Anai Jaxinto bere entrenatzailea da eta lau urte soilik igarotzen ditu La Sallen ikasten. Sportingekin fitxatzen du.
- Tarbenan O. jauna ezagutzen du Enekok. Egun batean, elkarrizketa batean, O.jauna bere bizitza azaltzen dio Enekori eta egun horretatik aurrera ez da tabernara berriro bueltatzen.
- Enekoren aita alkoholiko bilakatzen da. Hori dela eta, oso txarto jokatzen du familia osoarekin eta tratamenduan egoten da. Hiru hilabete igarotzen ditu psikiatrikoan. Egoera honen eraginez Eneko ikasketak utzi eta tabernan lan egin behar du... Enekoren aita errekuperatu eta tabernara bueltatzen da. Orduan Eneko futbolera bueltatzen da. Baina hilabete batzuk geroago, aitak edateari berriro ekiten dio, eta azken aldiz, tratamenduan egoten da.
- Barçan jokatzen hasten da. Montserrat izeneko neska ezagutzen du. Montserrat gizon famatuaren ileak gordetzen zituen pertsona horiek hil ostean ileekin dirua irabazteko. Eneko Montserratez maitemintzen da eta ezkontzen dira.
- Montserrat, R. jaunarekin izandako harremanen ondorioz dibortzitzen dira.
- Enekori elkarrizketa bat egiten diote eta elkarrizketa horretan gau bateko amodio-kontuak nahi zituela adierazten du eta horregatik hainbat dei jasotzen ditu. Dei horien ondoren bere gustuko neskekin oheratzen da.
- Adela izeneko neska batekin oheratzen da eta hiru hilabete geroago haurdun dagoela jakinarazten dio. Adela, Eneko mehatxatzen du; hogeit hamar milioi euro eskatzen dizkio sekretua gordetzeagatik. Baina Enekok uko egiten du eta notizia zabaltzen da.

- Drogak hartzen hasten da eta ospitalean amaitzen du. Ospitalean, Iker Ondategi izeneko mutila ezagutzen du, homosexuala dena. Eneko konturatzen da bera ere homosexuala dela eta maiteminduta dagoela.
- Adelaren mezu bat jasotzen du. Mezu horretan Adela jakinarazten dio minbizia duela eta pixkana pixkana hiltzen dagoela, eta Eneko bere semearen kustodia lortzen du.

Pertsonaiak

Eneko Ortega

Istorioren protagonista da. Bere bizitzan hainbat aldaketa drastiko izaten ditu, moralak batez ere.

Amona Sinforosa

Enekoren amama maitatua da. Berak txikitatik, hainbat lekzio eta urrats eman dizkio Enekori bizitzari buruz.

Enekoren aita

Eneko txikia zenean, ez zion kasu askorik egiten, baina honek futboleko talentua zuela ohartu eta gero, interes handia jartzen hasi zen. Ez zen senar ezta aita ona, baina ondo eta asko egiten zuena, alkohola edatea zen. Horregatik, bi tratamendu luze egin behar izan zituen eta hori, etxean arazoak ekarri zituen. Enekok futbolarekin jarraitzeko adibidez.

Montserrat

Neska ederra eta erakargarria zen, familia inportantekoa. Enekoren lehen emaztea izan zen, baina ez zuen funtzionatu, honek adarrak jarri zizkiolako Enekori.

Adela

Enekorekin ume bat izan zuen. Enekok hainbat neskekin harreman sexualak izaten zituen eta Adelak, Enekoren haurdun geratu nahi zen, ondoren mehatxatu ahal izateko. Azkenean, minbiziaz hiltzen da. Umea Enekorekin geratzen da.

O. jauna

Enekoren familiaren tabernan askotan egoten zena. Psikologoa zen eta Enekoren laguna izaten amaitu zuen, eta hari hainbat aholku eman zizkion.

Egituraketa

Istoria lehen pertsonan kontatuta dago, idazlea protagonista bera izango balitz bezala. Bere iraganeko bizitza kontatzen du beraz, iraganean idazten du. Enekok, txikia zenetik heldua egiten den arte kontatzen du, urtez urte gutxi gora behera. Zenbait salto eta flash-back-ak ere egiten ditu.

Liburuaren egituraketa bera, kapitulu numerikoen bidez dago eginda. Sarrera batean, hamaika kapituluetan eta epílogo batean dago banatuta, 254 orri osatuz guztira.

Baliabideak

Liburuan narratzaile bakar bat dago eta liburu pertsonaia da, 1. pertsonan idatzita dago eta Enekok bere istorioa propioa kontatzen du. Ez du hiztegi oso konplikatu erabiltzen baina pertsonaiek erabiltzen dituzten aditzak hika moduan idatzita daude.

Liburuan zehar etengabe dago idazlea haren sentimenduak adierazten, horretarako mota askotako baliabideak erabiltzen ditu:

- Deskribapenak. Pertsonaien izaera, lekuak, protagonistaren sentimenduak... azaltzeko deskripzioaz baliatzen da idazlea.
- Elkarrizketak: Pertsonaien arteko hizketa azaltzeko erabiltzen dira.

Horrez gain idazleak ez du figura askorik erabiltzen:

- Metaforak:
'Hankek urrezko altxorra gordetzen dutenean, berdin dira zuzen eta oker' (161)
'R. jauna, mantis religiosa bat naiz, mokaduz mokadu...' (186)
- Konparazioak:
'Nik zu zaitut maiteago arraintxoak ura baino.' (169)
- Esamoldeak:
'Behin erabakia hartuta ez naiz adarretatik ibili...' (186)

Iritzia

Liburuaren antolaketa eta itxura ez dira hoberenak. Azalarekin hasteko, ez da oso erakargarria baina aipagarria bai, istorioarekin oso ondo loturik dagoelako. Egituraketa arraroa da; kapitulu gutxi eta oso luzeak, bakoitzaren barruan gauza desberdinak kontatu arren, istorioaren hasieran dena oso poliki gertatzen da eta amaieran, dena korrika kontaturik dago. Liburuaren lehengo zatia baino gehiago Enekoren eguneroko bizitza azaltzen du eta askotan azaltzen diren gertaerak aspergarriak izaten dira. Liburuaren mamia azkenengo 100 orrialdetan azaltzen da, beraz liburua 150 orrialdeetan laburtuta hobeto idatzita egon daiteke.

Liburuaren argumentua futbolean oinarritzen da eta futbola gustuko ez duten pertsonentzat nahiko aspergarria izan daiteke liburua. *Odolean Neraman* 2004. urtean argitaratu zuen Joan Mari Irigoienek, baina hala ere istorioa idazteko moduak antzinakoa ematen du eta irakurketa zailagoa bilakatzea eragiten du. Horretaz aparte, erabiltzen diren aditzak ez dira ohikoenak (hikaren erabilera) eta, gainera, idazleak batzuetan erabiltzen duen hiztegia nahiko konplikatua da. Hainbat momentutan kontatzen dituen gauzak ere ez dira oso entretenigarriak. Irarkurketan zehar askotan denbora saltoak egoten dira, batzuetan egun bateko saltoak edo beste batzuetan hiru hilabetekoak. Hori dela eta nahiko konplikatua da jakitea noiz gertatzen den liburuko gertaera bakoitza. Arrazoi horiengatik ez du gehiago irakurtzera bultzatzen eta nahiko astuna egiten da batzuetan.

Hori guztia kendutua, pertsonaiak ondo aukeratuta daude eta haien pertsonalitatea oso argi islatzen da liburuan.

Laburbilduz, obrak ez du benetan merezi, eta are gutxiago futbolean interesatuta ez dauden irakurleentzat.

Biblio-Webgrafia

Bibliografia

Odolean neraman. Joan Mari Irigoien. Donostia, Elkar 2004

Webgrafia

<http://www.epdlp.com/escritor.php?id=9315>

<http://atalak.eus/ikasgela/nola-egin/il-gida>

<http://www.euskomedia.org/aunamendi/71774>

<http://www.compartelibros.com/autor/joan-mari-irigoien/1>

http://eu.wikipedia.org/wiki/Joan_Mari_Irigoien

http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp